



## LESAKA

### Prozedura exekutiboko egitateen jakinarazpena Erreferentzia: E153000/00004/2020

Kasu bakoitzean espedientean aipatzen diren arrazoiengatik, ezin izan da egin Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99. artikuluko 2. idatzi-zatian agindutako jakinarazpena. Horregatik, Foru Lege horren 99. artikuluko 4. idatzi-zatiak agintzen duenari jarraikiz, ediktu hau argitara ematen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta dei egiten zaie ondoko interesdunei, bulego kudeatzaileak ager daitezten (Iruñeko Eneko Aritza kalea, 16 - etxabea, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara), Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean, berak zuzenean edo behar bezala ordezkaturik, jakinarazpena jasotzeko. Eta aditzera ematen zaie ezen, epe hori betetzen denean agertu ez badira, egintza horiek jakinarazi zaizkiela ulertuko dela, ondorio guztietarako, epea bete eta biharamunetik.

Zegapekoei ohartarazten zaie: premiamenduzko prozeduraren edozein tramite jakinarazitzat jotzen denean, ez interesdunak ez haien ordezkariak agertu ez direlako, jakinarazitzat joko dela premiamenduzko prozedurak egiten diren hurrengo jarduketetan eta jardunbideetan, nahiz eta ez duten galduko beste edonoiz agertzeko eskubidea.

Administrazio-egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lesaka, 2020ko Otsailaren 6an.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Mikel Arrechea Lasaga.

Izena	NIF/CIF	Diligencia.	TN
TRUTA ,MARIN IOAN		20/01/2020	RB
	B20931275	20/01/2020	RB
	X6738258V	1360522020	CC

Zutabeko gakoak JM (jakinarazpen mota): CC Banku kontuak bahitzeko eginbideak, SM Lansariak eta soldatak bahitzeko eginbideak, DF Zerga itzulketak eta/edo nafarroako gobernuak aitortutako kredituak bahitzeko eginbideak, CA Kredituak bahitzeko eginbideak, RB Ondasunen eta eskubideen errekerimendua, CF Ordainketa zatikatua onartzea, PE Bahitura Probidentzia